

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	TELEBISTAKO PROIEKTUAK PRODUZITZEKO BALIABIDEEN ZEHAZTAPENA	Iraupena	80
		Espezifikoa	
Kodea	UF0365		
Lanbide-arloa	IRUDIA ETA SOINUA		
Lanbide-eremua	Ikus-entzunezkoen produkzioa.		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Telebistako produkzioko laguntza	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Telebistako proiektuen produkzioa	Iraupena	180
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Telebistako proiektuen produkzioaren lanerako planaren prestakuntza	Iraupena	60
	Telebistako proiektuen aurrekontuen prestaketa		40

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0207_3 TELEBISTAKO PROIEKTUEN PRODUKZIOA ANTOLATZEA gaitasun-ataleko LB1 lanbide-burutzapenarekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Telebistako programen produkzio prozesuak aztertzea, eta prozesuaren fase bakoitzean esku hartzen duten enpresak, sailak eta ekipo profesionalak eta haien produktu eta/edo zerbitzu bereizgarriak identifikatzea, deskribatzea eta erlazionatzea.
- E1.1 Telebista-enpresak titulartasunaren, estalduraren eta programazioaren arabera identifikatzea eta sailkatzea.
 - E1.2 Telebista tipo baten arloen eta sailen antolaketa-egitura eta funtzioak deskribatzea.
 - E1.3 Telebista handien antolakuntza-, funtzio- eta ekoizpen-egitura eta produkzio-estrategiak tokiko telebisten egitura eta estrategiek in alderatzea.
 - E1.4 Telebista-programen produkzioan esku hartzen duten enpresa lagungarriak bereiztea.
 - E1.5 Funtzio-organigrametan, telebista-programen lanpostuak zerrendatzea.
 - E1.6 Telebista-programa baten produkzio-faseak azaltzea, arloak eta sailak, esku hartzen duten teknikariak, fase bakoitzean erabiltzen diren teknologiak eta enpresa lagungarriak identifikatuz.
 - E1.7 Produkzio-moduen ezaugarri espezifikoak bereiztea eta zerrendatzea: propioa, koprodukzioa, elkartua, trukea, etab.
 - E1.8 Telebista-programak sailkatzea eta deskribatzea, telebista-motaren, emanaldi-modalitatearen, produkzio-moduaren, generoaren eta azpigeneroaren, produkzio-euskarriaren, produkzio-estandarraren, produkzio-lekuaren, iraupenaren eta emanaldiaren prozeduraren arabera.
 - E1.9 Irratidifusioko Europako Batasunak zehaztutako telebista-programen tipologia identifikatzea.
- A2: Telebistako ikusleen eta programazio-estrategien arteko erlazioak aztertzea.
- E12.1 Telebistako programazioak deskribatzea, kate-moten ezaugarri espezifikoaren arabera.
 - E12.2 Ikusle-motak sailkatzea, eta haien ezaugarriak deskribatzea.
 - E12.3 Ikusleak aztertzeko arrazoiak eta telebistaren programazioarekin duten erlazioa deskribatzea.
 - E12.4 Ikusle-neurketak egiteko sistema erabilienak deskribatzea.
 - E12.5 Telebista-programa baten ikusle-kopuruan eragina duten faktore nagusiak aipatzea: emanaldiaren ordutegia, urtaroa, asteko eguna, gaurkotasuna, kalitatea, lehia, etab.
 - E12.6 Telebistako programazio-teknika erabilienak identifikatzea.
- A3: Telebista-programen produkzioan esku hartzen duten baliabideak zehaztea eta ordenatzea, dokumentu tekniko espezifikoaren azterketatik abiatuz.
- E13.1 Telebista-programen produkzioarako sarrera-dokumentu nagusiak (gidoiak, eskaletak, etab.) identifikatzea eta bereiztea, eta haien egiturazko elementuak deskribatzea.
 - E13.2 Produkzioan esku hartzen duten baliabideak identifikatzeko eta ordenatzeko beharrezkoak diren dokumentuak (banakapen-motak eta zerrendak) deskribatzea.
 - E13.3 Telebista-programen produkzioan ohikoenak diren soinu-dokumentuen eta dokumentu bisualen (irudiak eta grafismoak) iturriak identifikatzea eta deskribatzea.
 - E13.4 Informazioa identifikatzeko eta sailkatzeko teknikak eta prozesuak deskribatzea.
 - E13.5 Telebista-programa batean esku hartzen duten giza baliabideak sailkatzea, haien ezaugarriak zehazteko teknikak eta moduak identifikatuz.
 - E13.6 Telebista-programak produzitzeko erabiltzen diren efektu bereziak identifikatzea eta deskribatzea.

EI3.7 Zinema-lanen eta ikus-entzunezko lanen produkzioan erabiltzen diren jokaespazioak eta eszenografia-materialak identifikatzea, sailkatzea eta deskribatzea, genero bakoitzaren komunikazio-ezaugarrien eta ezaugarri espresiboen arabera.

EI3.8 Baliabide teknikoak identifikatzea eta deskribatzea, haien prestazioak prozesuaren fase bakoitzarekin eta pertsonal tekniko arduradunarekin lotuz, eta baliabide propioak eta besterenak bereiziz.

EI3.9 Telebista-programaren gidoitik edo eskaletatik abiatuz:

- Jokalekuak eta eszenografia-materialak identifikatzea.
- Baliabide material eta tekniko eta giza baliabide implizituak eta esplizituak identifikatzea, sailkatzea eta ordenatzea.
- Dokumentuak ongi prestatzea (banakapenak eta zerrendak, etab.), teknika eta kode egokiekkin, eta tresna informatiko egokiak erabiliz.

A4: Telebista-programen elementu formalak eta kode bereizgarriak identifikatzea, haien ikusmeneko hizkera eta/edo soinu-hizkuntza aztertuz.

EI4.1 Irudiaren eta jokaespazioaren elementu morfologikoak, dinamikoak eta eskalarrak identifikatzea.

EI4.2 Irudi-planoen eta kamera-mugimenduen tipologia eta haien balio espresibo eta estetikoak deskribatzea, baita mezu bisualak egiteko duten funtzioa ere.

EI4.3 Pertsonaiak marko edo jokaespazio batean kokatzean, konposizio-orekaren oinarriko arauak erabiltzea.

EI4.4 Soinuaren elementu morfologikoak, dinamikoak eta eskalarrak identifikatzea.

EI4.5 Irudia eta soinua tratatzeko modu bereizgarrienak identifikatzea, telebistako aplikazio espresiboari dagokionez.

EI4.6 Irudi baten, jokaespazio baten eta soinu-paisaia baten irakurketa-mailak ezagutzea.

EI4.7 Ikus-entzunezko dokumentuetatik abiatuz, mezuak osatzen dituzten egiturazko funtsezko elementu formal eta teknikoak identifikatzea, eta haien eraginkortasun komunikatiboa ebaluatzea.

A5: Telebista-programen egitura narratibo bereizgarrienak azaltzea, eta espazioa-denbora artikulatzeko moduak identifikatzea.

EI5.1 Ikus-entzunezko kontakizun baten egitura narratiboak deskribatzea.

EI5.2 Literatura-lan bat edo ideia bat gidoi literario bihurtzeko prozesuak zerrendatzea.

EI5.3 Ikus-entzunezko programen produkzioan erabiltzen diren genero literarioak eta teknikak deskribatzea, haien egiturazko elementuak eta elementu tematikoak identifikatuz.

EI5.4 Jokaespazioaren zatiketan erabiltzen diren teknikak bereiztea.

EI5.5 Ikus-entzunezko produkzio baten eta soinu-produkzio baten garapenean jarraitutasun-arauei (narratiboa, tematikoa, formala, etab.) eusteko beharra detektatzea.

EI5.6 Ikus-entzunezko edizioan espazioa/denbora artikulatzeko teknika eta baliabide garrantzitsuenak identifikatzea.

EI5.7 Ikus-entzunezko produkzio baten soinu-bandaren osagaien balio espresiboa identifikatzea: off ahotsa, ahots eta elkarriketa sinkronizatuak, musika, giroko soinu-efektuak, isiluneak.

A6: Telebista-programen generoak eta estiloak aztertzea, haien ezaugarri espezifikokoak ezagutzeko eta bereizteko.

EI6.1 Telebista-programen generoek giltzarri eta kode formalak zerrendatzea eta deskribatzea.

EI6.2 Telebista-programen generoetan erabiltzen diren baliabide narratiboak zerrendatzea eta deskribatzea.

EI6.3 Telebista-programa batetik abiatuz:

- Zer generotakoa den identifikatzea.
- Generoaren giltzarri espezifikokoak identifikatzea.
- Erabilitako baliabide narratiboak identifikatzea.

A7: Ikus-entzunezko lanetan erabiltzen diren errealizazio-teknika espezifikokoak aztertzea eta bereiztea.

EI7.1 Ikus-entzunezko produktu baten prestakuntza-, grabazio- eta akabera-prozesuetan errealizadoreak zer funtzio dituen deskribatzea.

EI7.2 Gidoi literario bat gidoi tekniko bihurtzeko prozesua identifikatzea, gidoi tekniko horrek isla ditzakeen lanerako metodoei eta ikus-entzunezko informazioari dagokionez erabiltzen diren kode eta elementu deskribatzaileak aipatuz.

EI7.3 Telebista-programetan, zuzenean lan egiteak edo emanaldia aurretiaz grabatzeak dituzten abantailak eta eragozpenak identifikatzea (antolakuntza, aurrekontuak, teknikariak, denbora, etab.).

EI7.4 Kamera batekin eta kamera ugarirekin grabatzeko teknikak aplikatzean kontuan izan behar diren elementuak eta aldagaiak bereiztea.

Edukiak

1. Telebista-instalazioak eta telebista enpresak

- Titulartasun-motak eta kontrol-moduak.
- Telebista-instalazioen sailkapena, hauei dagokienez: programazioa, Estaldura.
- Telebista-instalazio baten organigrama tipoa.
- Enpresa lagungarri motak.
- Balio erantsiko zerbitzuak.

2. Telebistako programazio-estrategien azterketa

- Telebista-programen tipologia.
- Telebistako programazioaren azterketa: Telebistako programazioa. Programazioaren diseinua eta teknikak.
- Ikusle-motak. Ezaugarriak.
- Entzuleen azterketak, eta programazioarekin duten harremana. Telebistako programa baten ikusle-kopuruan eragina duten faktoreak.
- Ikusle-neurketak: neurketa-adierazleak, -sistemak eta -enpresak.

3. Telebista-programen produkzio-prozesuak

- Prozesuaren faseak eta garapena, industria-instalazioaren arabera. Preprodukzioa. Produkzioa. Postprodukzioa
- Produkzio-moduak: Propioa. Koprodukzioa. Elkartua. Trukea
- Telebistako produkzioa programaren generoaren arabera: Albistegiak. Dramak. Barietate-programak. Emankizunak.
- Erabilitako teknologiak.
- Laneko ekipoak.

4. Ikus-entzunezko hizkuntzaren azterketa

- Mezuak osatzen dituzten elementuak
 - Irudiaren azterketa eta ezaugarriak.
 - Soinuak erabilera espresiboa.
 - Komunikazio-eraginkortasuna.
- Planoaren funtzioa eta balio espresiboa: Plano-motak. Kamera-mugimenduak

5. Ikus-entzunezko narratibaren analisisa

- Ikus-entzunezko idazketaren azterketa: Gidoi literarioa. Gidoi teknikoak.
- Generoen eta estilo narratiboen egiturazko elementuak.
- Ikus-entzunezko edizioan erabiltzen diren teknikak eta baliabideak.

6. Errealizazio-tekniken identifikazioa

- Lan egiteko moduen abantailak eta eragozpenak: Grabatuta. Zuzenekoak. "Zuzeneko faltsua"
- Kamera-erregistroaren erabilera kontuan izan beharreko elementuak:
 - Kamera bakarreko errealizazioa.
 - Kamera ugariako errealizazioa.

7. Produkzioarako beharrezkoak diren baliabideen identifikazioa

- Dokumentazio-iturriak: soinua, bisuala eta idatzizkoa.
- Informazioa sailkatzeko teknikak.
- Produkzioan esku hartzen duten giza baliabideen ezaugarrien zehaztapena.
- Efektu bereziak: motak.
- Jokaespazioen eta eszenografia-materialen sailkapena eta ezaugarriak.
- Bitarteko teknikoaren prestazioak.
- Baliabideen banakapena.
 - Banakapen-zerrendak.
 - Banakapena egiteko irizpideak

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpideak

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Telebistako produkzioko laguntza